

# Jalgi hadi plazara

Hona hemen gaiari eta sortuko duzun testuari lotutako zenbait proposamen zeure kabuz egiteko. Proposamen horiek euskaltegiaren blogean aurkituko dituzu, B.2 mailako ikastorduen atalean. Gogoratu ikasprozesuan aurrera egiteko oso garrantzitsua dela **zure euskara plazara ateratzea!**

## JALGI HADI PLAZARA!

### Eginkizunari lotuta:

- ✓ Atera **argazki** bat zeure buruari lanean zabiltzala, eta erakutsi ikaskideei. Erakustean, **azaldu zer egiten duzun normalean zure lanean**, zer ordutegi duzun eta abar.
- ✓ **Irakur itzazu lan-eskaintza batzuk**. Aukeratu benetako **iragarki bat**, eta **idatz ezazu aurkezpen-gutuna** benetan lan horretara aurkeztuko bazina bezala. Gutuna bukatutakoan, pasatu irakasleari, berak zuzen dezan. Lan-eskaintzak euskaraz irakurtzeko klikatu [helbide honetan](#) edota [beste honetan](#).

### Telebistako saioei lotuta:

- ✓ Ikus ezazu, nahieran aukera erabilita, eitb.eus orrialdean [Eskabetxerak izeneko](#) filma. Film luzea da; kontserba-lantegi batean girotutako komedia honek eskabetxera lanbide zaharra utzi nahi ez duen emakume talde baten eguneroko bizitza du ardatz. Hurrengo egunean, ikaskideei kontatu laburpentxo bat, zeri buruzkoa den pelikula, gustatu zaizun...
- ✓ Ikus ezazu eitb.eus orrialdean nahieran aukera erabilita *Gure lanbide zaharrak* izeneko saioko atal bat. Atal bakoitzean gai bat jorratzen dute, adibidez, atal bat gozogintzari buruzkoa da, beste bat jantzigintzari buruzkoa, itsasoari lotutako lanbideak, baserriari lotutakoak... Aukera ezazu atal bat, ikusi, eta aste honetan erabiliko dugunaren antzeko buru-mapa bat bete ezazu atalean ikusitakoarekin. Hurrengo egunean, erakutsi buru-mapa irakasleari, eta kontatu ikaskideei lanbide horien nondik norakoak. Hemen duzu [gozogintzari](#) buruzko atala.

### Lanaren inguruko webguneiei lotuta:

- ✓ Egin bisita [Lanbide zerbitzuaren orriari](#). Lan eskaintzak, ikastaroak... informazio asko dago bertan. Enplegurako [orientazio-bideo](#) batzuk dituzte bertan. Bideo laburrak dira eta oso praktikoak. Ikus ezazu horietako bat eta konta iezaiezu hurrengo egunean eskolan ikaskideei bertan ikasitakoa.
- ✓ [Orri honetan](#) antzinako lanbide askoren azalpena dago. Bila ezazu lanbide bat, jaso berari dagokion informazioa eta konta iezaiezu ikaskideei hurrengo egunean.